# Xedapen Orokorrak

## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

### 1067

27/2006 DEKRETUA, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio-araubideari buruzko dekretua aldatzen duena.

Administrazio kontratazioen alorrean administrazio honek emandako araubide orokorra Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio-araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuan dago. Aipatu dekretuak antolakuntza mailako aldaketak jasan ditu (otsailaren 18ko 35/1997 Dekretuak, abenduaren 23ko 304/1997 Dekretuak, otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak, uztailaren 27ko 300/1999 Dekretuak eta abenduaren 28ko 464/1999 Dekretuak burutuak), hau baita funtsean aipatu ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuak duen tasuna, eta, etengabe garatzen ari den eta dinamikoa den zeinahi erakundek nahi eta nahi ez egin beharreko aldaketek dekretu honi eragiteko dagoen arrazoia.

Testuinguru honetan, dekretu honek burututako aldaketak araua lehen idazketa hartatik zortzi urte beranduago egun dagoen antolakuntza-errealitatera egokitzen du.

Ondorioz, Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordeak txostena eginda, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko otsailaren 21ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*Lehenengo artikulua.–* Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio-araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren «Jarduera-eremua» 5. artikuluaren 1. paragrafoa aldatzea.

Ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren «Jarduera-eremua» 5. artikuluaren 1. paragrafoa berridatzi eta honela gelditu da:

«1.– Kapitulu honetan aurreikusitako kontratazio-mahaien jarduera-eremua lehiaketa eta enkante bidez esleitutako kontratazio-espedienteen ezagutzak osatzen du eta beronen kontratazioa sail edo erakunde autonomo bakoitzari dagokio, baldin eta, dekretu honi edo arau berezi bati jarraiki, beste kontratazio-mahai bati edo administrazioko organo bati esleitu ez bazaio.

Prozedura negoziatuan, kontratazio-mahaiaren esku-hartzea hautazkoa izango da kontratazio-organoarentzat. Kontratazio-mahaiak esku-hartzen ez duen prozedura negoziatuetan, dekretu honek kontratazio-ma-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

### 1067

DECRETO 27/2006, de 21 de febrero, de modificación del Decreto sobre régimen de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

La regulación general dictada por esta Administración en materia de contratación administrativa se encuentra en el Decreto 136/1996, de 5 de junio, sobre régimen de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Dicho Decreto ha tenido posteriores modificaciones de tipo organizativo (realizadas por el Decreto 35/1997, de 18 de febrero, por el Decreto 304/1997, de 23 de diciembre, por el Decreto 12/1998, de 3 de febrero, por el Decreto 300/1999, de 27 de julio y por el Decreto 464/1999, de 28 de diciembre), pues éste es el carácter que fundamentalmente tiene el citado Decreto 136/1996, de 5 de junio, y, la razón que lo hace vulnerable a los cambios que toda organización en constante evolución y dinamismo debe acometer de forma inevitable.

En este contexto, la modificación operada por el presente Decreto tiende a adecuar la norma a la realidad organizativa existente ocho años después de aquella primera redacción.

Por ello, previo informe de la Junta Asesora de la Contratación Administrativa, a propuesta de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 21 de febrero de 2006,

DISPONGO:

*Artículo primero.–* Modificación del párrafo 1 del artículo 5 «Ámbito de actuación» del Decreto 136/1996, de 5 de junio, sobre régimen de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Se da nueva redacción al párrafo 1 del artículo 5 «Ámbito de actuación» del Decreto 136/1996, de 5 de junio, que queda redactado como sigue:

«1.– Constituye el ámbito de actuación de las mesas de contratación previstas en el presente capítulo, el conocimiento de los expedientes de contratación adjudicados por concurso y subasta cuya contratación corresponde al respectivo departamento u organismo autónomo, salvo que, en virtud del presente Decreto o de una norma especial haya sido atribuido a otra Mesa de contratación u órgano de la Administración.

En el procedimiento negociado la intervención de la Mesa de contratación será potestativa para el órgano de contratación. En los procedimientos negociados en los que no intervenga mesa de contratación, las funciones que

haien idazkaritza edo aholkularitza juridikoko lana egiten duten pertsonei ematen dizkien zereginak, sailaren edo erakunde autonomoaren antolaketarekin bat, kontratazio-mahaiko idazkari eta bokal-aholkulari juridikoko zereginak dituzten pertsonek beteko dituzte eta hauei mahaiaren esku-hartzea adosten den kasuan prozedura ezagutzea egokituko litzaieke.»

***Bigarren artikulua.***– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio-araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren «Funtzioak» 7. artikuluaren 4. paragrafoko a) idatz-zatia aldatzea.

Ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren «Jarduera-eremua» 7. artikuluaren 4. paragrafoko a) idatz-zatia berridatzi eta honela gelditu da:

«Kontratuaren aldaketak, nahiz eta ondoz ondokoak izan, ondorio gisa, banaka nahiz batera, kontratuaren prezioa % 25 gehiago edo gutxiagoko zenbatekoaren aldatzen dutenak edo kontratua funtsean aldatzen dutenak. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak bideratutako aldaketak salbuetsita daude.»

***Hirugarren artikulua.***– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio-araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren «Kontratazio Batzorde Nagusiaren jarduera-eremua» 9. artikuluaren 2. paragrafoa aldatzea.

Ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 9. artikuluaren 2. paragrafoari azken idatz-zati bat erantsi zaio, zeinaren testua ondokoa baita:

«Kontratazio Batzorde Nagusiaren eskumena kontratazio-mahaiari buruz 7. artikuluan aurreikusitako zereginetara zabaltzen da; eta, bere idazkariarena eta aholkulari juridikoarena kontratazio-mahaiko idazkariari eta aholkulari juridikoari dagozkienetara. Halaber, prozedura Kontratazio Batzorde Nagusiak bideratzeak Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren txostena ez du beharrezko egiten, aipatu 7. artikuluaren 4. paragrafoan aipatu baldintzetan.»

XEDAPEN IRAGANKORRA

Izapideetan dauden espedienteak.

Dekretu hau indarren sartu aurretik hasitako espedienteak aurreko araudiaren arabera eraenduko dira.

AZKEN XEDAPENA

Indarrean sartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2006ko otsailaren 21ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

este Decreto atribuye a las personas que desempeñan la secretaría y la asesoría jurídica de las Mesas de contratación serán desempeñadas por las personas que de acuerdo con la organización departamental o del organismo autónomo tienen atribuidas las funciones de secretario y vocal-asesor jurídico de la Mesa de contratación a quien hubiera correspondido conocer el procedimiento en el caso de haberse acordado la intervención de la Mesa.»

***Artículo segundo.***– Modificación de la letra a) del párrafo 4 del artículo 7 «Funciones» del Decreto 136/1996, de 5 de junio, sobre régimen de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Se da nueva redacción a la letra a) del párrafo 4 del artículo 7 del Decreto 136/1996, de 5 de junio, que queda redactado como sigue:

«Modificaciones del contrato, aunque fueren sucesivas, que impliquen, aislada o conjuntamente, alteración del precio del contrato en cuantía superior en más o en menos al 25 por ciento de su importe, o representen una alteración sustancial del contrato. Quedan exceptuadas las modificaciones tramitadas por el ente público Osakidetza-Servicio vasco de salud.»

***Artículo tercero.***– Modificación del párrafo 2 del artículo 9 «Ámbito de actuación de la Comisión Central de Contratación» del Decreto 136/1996, de 5 de junio, sobre régimen de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Se adiciona un nuevo último apartado al párrafo 2 del artículo 9 del Decreto 136/1996, de 5 de junio, con el siguiente texto:

«La competencia de la Comisión Central de Contratación se extiende a las funciones contempladas en el artículo 7 relativas a la Mesa de contratación; y, a su secretario y asesor jurídico las correspondientes al secretario y asesor jurídico de la Mesa de contratación. Así mismo, la tramitación del procedimiento por la Comisión Central de Contratación hace innecesario el informe de la Dirección de Patrimonio y Contratación en los supuestos a los que se refiere el párrafo 4 de citado artículo 7.»

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Expedientes en tramitación.

Los expedientes iniciados con anterioridad a la entrada en vigor del presente Decreto se regirán por la normativa anterior.

DISPOSICIÓN FINAL

Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 21 de febrero de 2006.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.